

GARAIA IRITSI DA

Egilea: Izuargi

Ezetz esan nion. Ezezko argi eta garbia. Tira, edo hori da behintzat nik gogoratu nahi dudana. Hala ere, errealitatea bestelakoa izan zela onartu beharra daukat.

- Ama izateko garaia iritsi zaidala uste dut.

Plaust! Horrelakoxea izan da beti Miren. Ni ez bezala, gauzak zuzen eta argi esaten dituen horietakoa. Orduko goiz hartan ere esan beharrekoa bat-batean tirokatu zuen, itzulingururik gabe.

- Barkatu, zer esan duzu? -erantzun nion, ez entzunarena eginez.

- Ama izan nahi dudala, laztana. Badaramat denboraldi bat horri buruz pentsatzen eta une egokia dela uste dut.

Larunbat goiza zen eta elkarrekin gosaltzen ari ginen etxean. Ohitura ukiezina izaten zen hura, ia erritu baten modukoa. Berdin zen egunean zehar bakoitzak izango zituen plan edo betebeharrak: larunbat goizeko armosua elkarrekin egiteko izaten zen. Goizeko 9ak inguruan ohetik altxatzen ginen eta gure pisu txikiko sukalde txikian batzen ginen. Mirenek esaldi hura bota zuenean, gosaltzen hasi berriak ginen. Kafesnea, zerealak eta laranja zukua ezinbestekoak izaten ziren mahai gainean. Momentu hartan txokolatezko zereal koilarakada pare bat baino ez nituen jan, eta nire burmuina astiro zihoan oraindik, azukre dosi nahikorik gabe. Dena den, burua katilutik jaso orduko, banekien Miren ez zebilela inondik inora txantxetan. Are gutxiago goizeko ordu horietan.

- Ama izan? noiz? orain? - erantzun nion baldar.

"Kontuz" esan nion nire buruari, "izoztutako lakuaren gainetik ari zara oinez, tentuz ibili zaitez". Pauso bakoitza ondo neurtu beharra zegoen. Izan ere, okerreko mugimendu batek dena izorratu zezakeen bat-batean.

- Noiz izango da, ba? Zuk 32 urte daukazu, eta nik laster beteko ditut 29. Ez gara ume moko batzuk jada...

"Nola ezetz?" pentsatu nuen nire artean, ez oso seguru. Nire erantzuna ere antzeko bidetik joan zen, zalantzati.

- Ba ez... ez dut uste... eh...- hortxe ito zen nire ahalegina. Azukre falta madarikatua.

-Ez, zer? - erantzun zidan Mirenek ahots tonu neutroa erabiliz.

Nire oinen azpiko izotzean arrakala bat zabaldu zen. Espero ez nuen eztabaida baten atarian aurkitu nuen nire burua, espero ez nuen une batean, gainera. Kaka zaharra. Inoiz ez zaizkit gustatu esnatu ondorengo lehenengo minutu horiek. Burua mantso dabil oraindik, eskuak trakets eta mihia alfer. Komunikaziorako gaitasuna oso mugatua izaten dut

horrelakoetan, eta ganorazko elkarrizketa baten ordeztan, silababakarreko hitzak edo purrustadak izaten dira nire ahotik ateratzen direnak; oihanean dauden tximino bik nik baino komunikaziorako gaitasun handiagoa daukate, seguru. Orduko goiz hartan, hala ere, gai hura bere horretan gelditu zen. Mirenek ez zidan erantzun edo azalpen gehiagorik eskatu eta gosaltzen jarraitu genuen. Hurrengo orduetan egingo genituen gauzen inguruan aritu ginen berbaz lasai. Mirenen begietan ez nuen inolako haserre edo ernegazio zantzurik ikusten. Aitzitik, larunbat goiz hartan dirdira berezia sumatu nuen bere begiradan.

Egunek aurrera jarraitu zuten eta Mirenek ez zuen gaia berriro atera -nik ere ez, noski- baina ondotoxo nekien hortxe zegoela, goiz ala berandu bere lozorrotik aterako den hartza bezala, mehatxari. Miren ezagututa, denbora kontua baino ez zen izango. Izan ere, bera ez zen gauzak alferrik esaten zituen pertsona horietakoa. Bere buruarekin zintzoa eta kontsekuentea izaten zen beti; bere bizitza une oro balore-eskala argi baten arabera zuzentzeko gai izaten den pertsona arraro horietako bat. Horregatik, gauza bat zuzena eta beharrezkoa zela uste zuenean, bere buruarekin eta ingurukoekin zorrotz jokatzeko zuen. Gainera, jendea konbentzitzeko abilezia berezia zuen. Aurpegi biko txanpona bezala, bere izaera gogorra bezain samurra izan zitekeen: tematia eta irmoa, eta aldi berean ulerkorra eta elkarrizketarako irekia. Miren emakumezko txikia eta mehea zen, ezti koloreko begi handi eta zoliekin begiratzen zintuena. Oso atsegina izaten zen aurrez aurreko hartu-emanetan, eta era berean -nik inbidia puntu batekin miresten nuen- hitz-jario handia zuen. Ezaugarri horiei guztiei eskerrak, azkar lortu zuen bere lanpostuan ere nabarmentzea. Zortzi urte zeramatzan erizain lanetan Bilboko klinika batean, eta bere lankideen errespetua eta konfiantza aspaldi irabazita zuen.

Mirenen izateko modua eta nirea, horrenbestez, oso bestelakoak ziren. Askoren esanetan, ura eta olioak modukoak, bateraezinak. Baina batek daki zergatik, unibertsoak edo patuak hala nahi izan zutelako, oso ondo konpontzen ginen eta bost urte generamatzen elkarrekin. Ezagutu ginen garaian Miren erizain bezala zebilen lanean, eta ni, aldez, administrazio publikorako oposaketak gainditu berri nengoan, nire funtzionario lanpostu berriari neurria hartzen. Esan gabe doa, funtzionario publikoek nahiko fama txarra izan ohi dutela: pertsona desatsegin, lehor eta petral xamarrek omen dira. Beno, ba nirekin topiko horiek bete egiten ziren. Zer egingo diot, ez zait jendea gustatzen. Aspaldiko kontua da. Nire gurasoak ere ume koskorra nintzela jabetu ziren nire joera antisozialaz. Aitak sarritan gogoratzen du, penaturik, eskola garaian arazo ugari izan nituela lagunak egiteko, eta auzokideekin ere haur lotsagabe eta zakar xamarra nintzela. Hori guztia kontuan hartuta, gazte-gaztetatik argi izan nuen nire helburua bulego txiki batean lan egitea izango zela. Alegia, eguneko 8 orduak ordenagailu baten aurrean isolaturik igaro, gainontzeko lankideekin ahalik eta harreman gutxien izan, eta etxera. Tamalez, nire helburua erdizka baino ez nuen lortu. Oposaketak gainditu ondoren, funtzionario postua eskuratu nuen baina nire aurreikuspenak ez ziren bete. Izan ere, nik irudikatzen nuen bulego txiki eta bakarti hura, leihatila bategatik ordezkatu behar izan nuen. Gaur egun, egunean 8 orduz herritarren erreklamazio, zalantza eta eskariei aurre egitea dagokit. Jendearen arazoak kezkatzen

nautela erakutsi behar dut eta beraiekin ahalik eta atseginen jokatu...! lan benetan gogorra ni bezalako pertsona batentzat, irribarreak eta hitz gozoak garesti saldu dituen horietakoa izan bainaiz betidanik. Askoren ustetan pertsona nahikoa ozpindua naiz, bai, baina inor ez da perfektua. Eta nire inperfekzio horren baitan, dirudienez, Mirenek zerbait ikusi zuen, eta primeran konektatu genuen hasiera-hasieratik. 5 urte eta gero, oso ondo ezagutzen genuen elkar. Ondoegi, akaso.

Horregatik, banekien egunek eta asteek aurrera jarraitu arren, "gai hura" berriz mahai gainera aterako zuela Mirenek. Eta, espero bezala, horrelaxe izan zen. Bigarrenaldi hartan ere ezustean harrapatu ninduen, baina zorionez ez zen goizeko lehenengo orduetan izan. Telebistari begira geunden ostiral iluntze batean izan zen. Ia oharkabean, eta lasaitasun osoz, Mirenek zera esan zidan:

-Orain dela aste batzuk esan nizuna akorduan daukazu, laztana?

Une batez ez nuen jakin zertaz ari zen. Baina une batez baino ez zen izan...

- Askok pentsatu dut honi buruz -jarraitu zuen esaten- eta nire garaia iritsi dela uste dut. Nirea eta gurea, noski. Horregatik hitz egin beharra daukagula uste dut.

Beste behin, itzulingururik gabe. Zerbait esan beharra zeukanean Mirenek ez zituen denbora eta listua alferrik gastatzen, ez horixe! onerako zein txarrerako, zuzena eta argia izaten zen. Arratsalde hartan, gainera, erabakitasun handiagoz hitz egin zuen. Eta elkarrizketa hura, aurrekoa ez bezala, ez zen bere horretan geldituko. Hain argi al zeukan ama izan nahi zuela? "amatasunaren deia" delakoa sentitu al zuen? Zaila egiten zitzaidan hori sinestea. Horrelako kontuak txorakeriak baino ez direla pentsatu izan dut beti. Telebistako iragarkietan produktu gehiago saltzeko aipatzen diren txepelkeria horietako bat baino ez. Dena dela, bere hitzak entzun ondoren, niri zegokidan zerbait esatea eta tentuz ibili behar nuen, badaezpada ere.

- Seguru al zaude...? esan nahi dut... orain une egokia dela uste al duzu? - erantzun nion gozotasunez.

- Bai, argi daukat. Orain dela 5 urte ezagutzen gara, 3 daramatzagu elkarrekin bizitzen eta, garai txarrak izan arren, lanari dagokionez segurtasun ekonomiko nahikoa daukagu, ondo dakizu.

Artilleria astuna, alajaina. Behin hitz egiten hasita, Mirenek pisuzko argumentuak jaurtitzen zituen bata bestearen atzetik.

- Gainera -bere azalpenekin aurrera jarraitu zuen- aspalditik dakizu ama izateko gogoia daukadala. Haurrak asko gustatzen zaizkit eta... -etenaldi bat egin zuen eta begirada maltzurrez begiratu ninduen- zuri ere bai.

Crochet bikaina. Mirenek arrazoia zeukan. Oro har ez nuen jendea atsegin, ados, baina nire joera antisozialaren barnean bazegoen salbuespen bat. Kontraesana dirudien

arren, haurrak gogoko nituen. Beti pentsatu izan dut guk, helduok, egunero milaka tranpa, amarru, eta azpijoko erabiltzen ditugula norberaren helburuak lortzeko, eta elkar zapaltzeko gai izaten garela maiz. Haurrak, ordea, -haur txikiak behinik behin- bestelakoak dira. Oraindik galbideratu gabe dauden pertsona txiki horiek samurtasun berezia daukate, eta beti erakarri izan naute. Ezin nuen hori ukatu, eta Mirenek bazekien. Horregatik, aurrera jarraitu zuen bere argudiatzearekin, niri hitzik eman gabe. Berak ondo irakurtzen zuen une hartan nire burutik pasatzen ari zena, eta nire begiradarekin eta ahoarekin egiten nituen keinu mutuekin arrazoia ematen ari nintzaion.

-Badakit maitea, oraindik asko hitz egin beharko dugula honi buruz. Horregatik atera dut gaia berriz ere, eta zure iritzia jakin nahiko nuke.

Jendea konbentzitzeko ahalmen hura erabiltzen ari zen. Bere begirada asko gozotu zen bat-batean eta zorrotz bezain samur hitz egin zidan. Halaber, bere jarrera malgua zen, elkarrizketarako irekia. Oraingoan ere gai honen inguruan berba egiteko ateak parez pare zabaltzea lortu zuen. Ate horien giltza eskuetatik lapurtu zidan, oharkabean.

Ez dakit aipatu dudan, baina igogailuak gorroto ditut. Biziki gorroto dut metro karratu bat baino askoz gehiago ez den kutxa horretan sartzea eta etxerainoko bidaia auzokide batekin egin behar izatea. Segundo gutxiko kontua baino ez den arren, egoera horiek saihesten saiatzen naiz: isiluneak deserosoak izaten dira, eguraldiari buruzko komentarioak hutsalak eta ondoan daukazuaren arnasketa edo txistua zinez gogaikarriak... oso urduri jartzen naute. Horregatik, beti erabiltzen ditut eskailerak, gora zein behera, ez zait axola. Aitari bisita bat egiten joan nintzen arratsalde hartan ere, eskailerak erabili nituen 4. solairuraino igotzeko. Mirenek eta biok hartutako erabakiaren berri ematera joan nintzen. Azkenaldian ez nuen nire aita hainbeste ikusten baina berdin zen, oso ondo ezagutzen ninduen. Hartara, etxeko egongelan sartu eta hizketan hasi eta gutxira zerbait antzeman zuen.

- Zure bisita asko estimatzen dut, laztana... denak ondo jarraitzen du, beraz, zu eta Mirenen artean? - galdetu zidan aitak supituan.

Bere ahotsaren tonua lasaia zen, ez zuen inolako kezka edo larritasunik erakusten. Gizon lasaia zen aita, eta kanpotik ere inpresio hori ematen zuen beti. 58 urte izan arren, buruko ilea guztiz urdinduta zeukan aspalditik eta bere gris koloreko begi txikiek bat egiten zuten bere aurpegian sarri azaleratzen zen irribarre adeitsuarekin: biak ala biak, baretasun berezia transmititzeko gai ziren une oro. Orain dela bi urte alargundu zenetik, ordea, hain berezkoak zituen bizipoza eta kemena neurri handi batean galdu egin zituen aitak. Izan ere, amaren berehalako gaixotasun larri hura atzaparkada lazgarria izan zen biontzat, eta aitaren kasuan batez ere, atzaparkada haren zauriak irekita jarraitzen zuen oraindik, orbainik sortu

gabe. Nire bisitek, nolana ere, suspertu egiten zuten aita nolabait, eta galdera hura egin zidanean ere, irribarretsu eta poz-pozik begiratzen ninduen, nire erantzunaren zain.

- Bai, aita, lasai egon zaitezke. Gure arteko harremana oso ondo doa. Are gehiago, berri bat ematera etorri naiz.

Une horretan aitaren aurpegiko zenbait gihar tenkatu egin ziren. Poztasuna eta kezka nahasten zituen keinu batek harrapatu zuen bere begirada. Izan ere, alde batetik bere senak ez zuen huts egin eta ondo baino hobeto asmatu zuen nire buruan zerbait bazegoela. Beste alde batetik, ordea, ez zekien nondik nora joango zen notizia.

- Beno, badakizu ni ez naizela oso zuzena izaten hitz egiteko orduan -erantzun nion bere jakingura ahal bezain laster asetzeko asmoz- baina gaurkoan salbuespen bat egingo dut.

"Hara, hauxe bai nobedadea, zuzena izango zara!" adierazten zuen bere aurpegi harrituak. Begiak pixka bat gehiago zabaldu zituen eta apustu egingo nuke belarriak ere zentimetro pare bat handitu zitzaizkiola.

- Mirenek eta biok haur bat izatea erabaki dugu.

Zuzena izan nintzen, bai jauna. Ni neu ere harritu egin nintzen aitari eman nion erantzunarekin. Berari, aldiz, kopeta ilundu egin zitzaion eta arestiko kezka keinua bere aurpegia osora hedatu zen.

- Haur bat izango duzuela...- bere ahotsak indarra galdu zuela zirudien.

- Bai, aita. Ondo pentsatutako erabakia izan da eta Mirenek eta biok asko hitz egin dugu erabaki honi buruz. Ez duzu zertan kezkatu...

Aitak adi-adi begiratzen ninduen, eta nire ahotik erabakitasunez ateratzen ziren azalpen eta hitz guztiak arreta osoz entzuten hasi zen. Hala, hurrengo minutu eta orduetan gure erabakiaren inguruko xehetasun guztiak azaldu nizkion. Kafe gozo batek ematen duen energia baliatuz, aitak, munduko aita guztiek egiten duten bezala, ehunka galdera egin zizkidan- ala milaka izan ziren?- eta nik den-denak erantzun nizkion nigan oso ohikoa ez den pazientziarekin. Elkarrekin hitz eta pitz aritu ginen etenik gabe, eta udako arratsalde hura zitzu bizian pasatu zitzaigun. Bere kuriositate guztia ase ondoren, aitak arnasa sakon hartu zuen eta zintzotasun osoz esan zidan:

-Horrela bada, benetan pozten naiz zuengatik, Aintzane. Ama bikainak izango zarete, ez daukat inolako zalantzarik.

Hamar bat hilabete igaro dira aitarekin elkarrizketa hura izan nuenetik, eta urtebete inguru larunbat goiz hartan Mirenek ama izan nahi zuela esan zidanetik. Denbora horretan guztian luze eta zabal hitz egin genuen amatasunak suposatuko zuenari buruz; luze eta zabal eztabaidatu genuen haur baten etorrerak gure bizimodura ekarriko zituen aldaketei buruz. Egun, jada, haurdunaldiaren azken hiruhilekoan gaude. Dena ondo bidean, Miren eta biok ama izango gara udazkena iritsi bezain laster. Espero bezala, prozesua ez zen batere erraza izan baina, zorionez, gauzak ondo atera ziren eta Aimar laster izango da gure artean. Une honetan aro berri bati ekiteko gogotsu gaude, gure bizitzetako ziklo berri bati ekiteko irrikaz. Argi daukagu beldur, poz, negar zein irriz betetako bidea izango dela, baina elkar maite dugu eta elkarrekin egin nahi dugun bidea da. Mirenek esan zuen bezala, gure garaia iritsi da.